

oskorri in fraganti

OSKORRI dira:

Natxo de Felipe- Boza, perkusioak, akordeoiak
Anton Latxa- Boza, gitarra akustikoak
Bixente Martinez- Gitarra elektrikoa, mandolina
Fran Lasuen- Boza, bibolina
Joserra Fernandez- Alboka, xirula, armonika
Txarli de Pablo- Baxu elektrikoa
Jose Urrejola- Saxoa, flauta

Lasarteko ELKAR estudioan grabatua 1986ko
Urrian, Jean Phocas soinu tekniko zelarik
mila esker anitz berari.

AITA SAN MIGEL
Folk - Oskorri

OSTATUKO NESKATXAREN KOPLAK (A. Latxa-J.A. Arrieta)

Isildu zaigu eguna
larre ondoan asuna
zure gomuta saminagoa
bihotz nereko kutuna

Eperra garitzan kanta
chizeko zakurra zaunka
teilatu gorriari dario
nigar eta odol tanta

Belar gainean bildotsa
haizeak leun du hotsa
etsai-urratsen zarata hitsa
gorrotoaren ostotsa

Oilarrak harro kalparra
zezena ez da koldarra
España aldean preso daukate
nire senargai zangarra

Eder basoan haritza
pagoa lerdan borritza
bazter hauetan zenbait jaunskilok
errez jan ohi du bere hitza

Hibaia dator uholde
haizea uraren golde
cuskal andra gizonen odola
ez da ixuriko debalde

Udako sasoiak uzta
larreen eder irusta
nire bularra zuk lastan ezik
ximelduriko masusta

Sagarrak daude ustelak
mikaztu dira upelak
lehengo aldean orain gara gu
abertze txit epelak

Artoa zaigu zoritu
sagarrondoak gorritu
zu noiz itzuli itzaropena
ez zait gogotik akitu

Euriak mardul dario
elurrak dirudi liho
nire bihotzak ez dezaizuke
sekulan esan adio

Usaok dira igaro
basoak dirau oparo
nire magal gozoa dukezu
zatozkenean abaro

Zelaiak badu hesia
ereina dugu hazia
nire erraitan ernatuko da
askazi ezin-hezia

HAU DA DEBILIDADEA! (B. Martinez-X. Amuriza)

Kantaldia bart gauean
zamieta gozaldian
lo egin dugu hotel merkean
jaiki orduan goizean
erdia falta zirean.

Bidean kotxe gaixoa
berotu ta pintaxoa
karga-deskargan egun osoa
non da bazkari gozoa?
Hau ibilera zozoa!

Hau da debilidadea! ...

Noizbait lekura iritsi
zakurrak zaunkaka bizi
umeak buria eta garrasoi
gainera curia hasi,
urrerorako ikasi!

Jarri digute taldoa
itogina ta zuloa
argia ere airean doa,
hau da aukera bapoa
afaltzera joatea.


Hau da debilidadea! ...

Ene bada,
hauxe da debilidadea! ...

Afaldu eta patxara
osoa gatoz plazara
jendea txistu eta algarra.
Barka gauerdia bada
oraintxe hasiko gara.

Hasi gara eta ekin
zer izango da nork jakin!
falta diren mila eskumin
besteok segi gurekin
gaua eskarmenta dadin.

Hau da debilidadea! ...



ARRATSEKO FADOA (F. Lasuen-J. Sarrionandia)

Fadoa arratsen
maitaleen begietako malxo doratua
ortze urdina itasoa urdina
urdin lausotua
saudadzeko fadoa hiri goibelean
marinelen kalatxori mezularia
itas hegioko khabelen zimeldua
karrakako pimplinpausa eritua
lema sostengatzen duen brisara
sukaldean tristura
ohetik ez dutenen gordelekua
lehor hegi honetara arribatzean
Ulysesek nigar egin zuen
nigarkanta hurra arratseko fadoa

HIRI PORRU (B. Martinez-X. Amuriza)

Gorrian aurrera ta
berdean geldu
semaforo hau gaizki
zegok aspaldi
norbait atzetik baduk
izorra hadi.

Bankuaren aurrean
gure eleiza
espaloit bat harago
Korte Inglesa
non sartu asmatzea
ez da erreza.

Batean dela T. A. O.
bestean O. T. A.
autotik ez baneuka
ez dit inporta
baina ezingo diat
ibaira bota.

Hiriko isplua
bada erreka
egon behar diagu
tripak erreta
utz ezak flauta eta
jo zak tropeta.

Bihar hiltzen direnak
etzi ehortzi
etzidamu azturik
zazpitik zortzi
sekula sekulorum
hortzak igurtzi.

ERESBIL



1006463
F1/1247 1195

MARTIN GALOX (N. de Felipe-M. Galoxen alarguntsa)

(Buhamesa batek bere senarrari minduri-eresia 1930.an)

Martin Galox gaixoa,
ez haut gehiago mundu hontan ikusiko!
Hi hintzen ene argia, ene ogia, ene gasna!

Martin oroit haiza? Haranbeltzeko oihanean,
hamasei urte doi-doi nituela, hartu ninduan lepotik
eta hirea izan nahi nuen,
eta ondoko igandean dupina bota ziteian,
ez baitzen bost pusketan baizik hautsi
bost urterentzat egin genian tratu
eta halere hoge egin gaituk elkarrekin.
Hi hintzen ene argia, ene ogia, ene gasna!

Martin Galox, ez huen parerik
sasietan mizpira-makilak oxkatzeko,
ez zaldi gaiztoak heltzeko,
ez artileak moztzeko,
ez zerrak zikiratzeko!
Hi hintzen ene argia, ene ogia, ene gasna!

Martin, zer eginen diat hi gabe?
Ez haute gehiago bide horetan ikusiko,
ez diat gehiago sentituko hire hatsik
eta izerdi-usainik.
Hi hintzen ene argia, ene ogia, ene gasna!

disco honetan parte hartu dute ere:

Kepa Junquera- Trikitixa
Angel Celada- Bateria
Frederic Gaillardet- Teklatuak
Andrzej Olejniczak- Saxoa
George Mihail Nicolesku- Bibolina
Freyr Sigurjonsson- Flauta
Jabier Lakunza- Dultzaina
Jose Luis Fraile- Dultzaina
Josepe Zuazo- Azala, maketazioa
Kukubiltxo taldea- Pappina
Pedro Zarrabeitia- Fotografia

ARIN BERO (A. Latxa-X. Amuriza)

Lehenago lana inork
nahi ez zuena
orain bera bilatzen
lanik gehiena
hau da iritsi zaigun
aurrerapena.

Hirian sartu eta
dena zarata
zarata kentzen bada
arnasa falta
haizea ere hemen
kobratzen da-ta.

Gaua gaupasan eta
eguna lotan
lanik ez bada segi
dezagun hortan
zertan penatu berdin
izatekotan.



ATZO GOIZEAN (Folk/B. Martinez-J. Sarasua)

Atzo goizean goiz jaiki nintzen
erlojuaren kolpetik
Atzo goizean goiz jaiki nintzen
erdi-loaren trotetik
Hau ez da martxa ederra baina
zer atera kolkopetik?
Hau ez da martxa ederra baina
ez dut hautsiko kopetik.

Atzo haizeak leun zebiltzan
eguzkia ere murrizt
Atzo haizeak leun zebiltzan
ta gaur ere hala dabilzt
Auskalo orain zertan nengoken
kanpoan ekaitza balizt
Auskalo orain zertan nengoken
alfer haundi bat ez banintz.

Erreka doa bidean baina
gu hain azkar ez goaz ta
Erreka doa bidean baina
alboan daukagu aska
Ur geldiar trago egioik
eta egarria aska
Ur geldiar trago egioik
laster esango duk basta.

Bart barandutxo oheratu naiz
orduak kandelan errez
Bart barandutxo oheratu naiz
egitekorik ezer ez
Goizean jaiki ezinik eta
lo egiten dugu errez
Goizean jaiki ezinik eta
sartzeko ere alferrez.

OBABATXUE (B. Martinez-J. Sarasua)

Sehaskatxoak dilinda
iluna ere urdin da
Amets goxoak herriro dotoz
argian bira eginda
Sehaskatxoak dilinda
iluna ere urdin da
Auskalo zer den geroa, baina
loarentzako bendin da.

Kun kurrun kuttun kuttuna
lo goxoaren biguna
Ametsetako eguzkitxoak
argituko du eguna
Kun kurrun kuttun kuttuna
lo goxoaren biguna
Bihar agian egingo zara
zorionaren laguna.

Goxo goxo lo egizu
ez zara izango izu
Izar zurien ortzia zer den
zuk ere ondo dakizu
Goxo goxo lo egizu
ez zara izango izu
Egusentiaik erregalia
laster ekarriko dizu.

KYRIE ELEISON (Folk/N. de Felipe-Folk/X. Amuriza)

Fraide on batek jakin zuen
nola andre bat gaisorik zen
Eta senarra Montpellerren.
Kyrie, kyrie
Eta senarra Montpellerren
a la maison
Kyrie eleison.

Senarra dizut Montpellerren
ni sendatzeko bila uren
eta sekulan ez itzultzen
Kyrie, kyrie
eta sekulan ez itzultzen
a la maison
Kyrie eleison

Oi andere maitagarrien
jauna baduzu Montpellerren
nik zaitut berdin sendaturen.
Kyrie, kyrie
nik zaitut berdin sendaturen
a la maison
Kyrie eleison

Senarra noizbait itzuli zen
Zer sendagailu dabil hemen?
Fraide ta andre hil zituen.
Kyrie, kyrie
Fraide ta andre hil zituen
a la maison
Kyrie eleison



BIOLIN MUSIKAZ (B. Martinez-J. Sarrionandia)

Ezkila hurronek denbora bultzaka
enarok airea ehuntzen
xinaurriak lurra marratzen
nenufere oriskak hersten
xorimalo paldotak eremuko zentinelak
diren orenean
orduak duzu sendera noragabean
zeure burua erideiten
orduak duzu oroitzen
zelan diren filmeetako maitaleak
biolin musikaz besarkatzen

